

Iparretarrak taldeko militanteen omenezko margolana aurkeztu dute Baigorriin

ENEKO IMAZ GALPARSORO :: 28/04/2025

"Borrokan erori diren militanteak oroitaraztea" du helburu margolanak, IK-ko militanteak solik ez eta "Euskal Herriarentzat erori diren militante guztiak" ere bai.

IK Iparretarrak erakunde armatuko sei militanteren aurpegiak irudikatzen dituen margolan bat aurkeztu dute larunbatean Baigorriin (Nafarroa Behera): Txomin Olhagarai, Ramuntxo Arruiz, Didier Lafitte, Maddi Hegi, Kristof Isteque eta Jean Louis Larre *Popo*. Sei horietatik bost hilik daude. *Popo* 1983ko abuztuan Frantziako Poliziarekin Landetako Leon herrian izandako tiroketa baten ostean desagertu zen, eta ez da haren berri gehiagorik eduki geroztik. Xabi Tapia *Xabxab* artista urruñarrak egin du margolana herri sarrerako etxe baten kanpoko horman, eta Lagundu elkarteak antolatu du aurkezpen ekitaldia.

Filipe Bidart baigorriarrak eta IK-ko militante historikoak hartu du hitza omenaldian. Haren arabera, "memoria zaindu eta oroitaraztea beharrezkoa" da, aurreko belaunaldiek egindakoa "ezabatu" nahi baitute: "Zer gertatu zen aipatu behar da, gure historiaren parte baita. Iragana oroitaraztea ezinbestekoa da, iraganak oraina esplikatzen baitu". Bidartek Kazeta-ri aipatu dioenez, "borrokan erori diren militanteak oroitaraztea" du helburu margolanak, IK-ko militanteak solik ez eta "Euskal Herriarentzat erori diren militante guztiak" ere bai.

Lagundu elkarteko kideek paretak mintzatzeko duten ahala azpimarratu dute: "Betidanik mintzo dira Euskal Herriko paretak, nahiz eta beti denen gustukoa ez izan. Interneten eta telefonoen garai horietan, paretak badute beti arrakasta". Horregatik, pareta batzuk "isildu eta garbitu" nahi dituztela salatu dute, "zuri eta mutu" uzteko.

Aurkezpena egiteko egun berezia

Ekitaldirako data esanguratsua aukeratu dute antolatzaileek: 1979tik egiten den Nafarroaren Egunaren bezpera eta Gernikako bonbardaketaren 88. urteurrena. Lotura egin dute azken gertakari horrekin, "Gernikan izan zen sarraskian hil zinenei eta, oro har, Euskal Herriaren historian zehar bizia galdu duten euskaldun guztiei" omenaldia eginez.

Nafarroaren Eguna ere hartu du Baigorrik

1979tik ospatzen dute Nafarroaren Eguna, Nafarroa Beherea eta Nafarroa Garaia lotzen dituen jaia. Basaizea elkarteak antolatzen du eguna, eta aurtengo edizioa Baigorriin egin dute igandean. "Euskararen kateek inoiz baino indar gehiago" behar dutela azpimarratu dute antolatzaileek, azken hilabeteetan kate horiei eraso egiteko "etengabeko saiakerak" egin badituzte ere. Hain zuzen, Basaizeak "eskuin muturra eta faxismoa geroz eta indar eta leku gehiago" hartzen ari dela gogoratu du, eta horren aurrean, "kateak lotzera" dei egin du.

Iparretarrak taldeko militanteen omenezko margolana aurkeztu dute Baigorriin

<https://eh.lahaine.org/iparretarrak-taldeko-militanteen-omenezko-margolana>